


Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Eztandaren osteko barealdia ez da erabatekoa

Donostialdea ez du bakarrik Donostiak osatzen, askoz zabalagoa eta anitzagoa da. Eskerrak! Horixe bera pentsatzen dute Lezon entseatu, baina inguruko hainbat herritakoak diren Nova taldeko kideek. Metal gogorra egiten dute, benetako thrasha barren-barrenean daramana; ikusten da horretarako jaioak direla, baina nahiago dute beraien kantuen kontraste eta ñabardura bereziekin aberastea. Hala, gai dira gitarra oinarri oso indartsuak pasarte oso melodikoekin uztartzeko, edota gitarra melodia rockeroak muturreko garraiekin janzteko, besteak beste. Horrez gain, teklaturen eta hainbat efektuen laguntzarekin, bestelako giroak sortzen dituzte, askoz atmosferikoagoak. Euskaraz abesten dute, eta zinemaren lengoia erabiltzen dutela dirudi, irudiak ematen dituztelako, esan nahi dutena bere horretan azaldu ordez.



(izenik gabe)

Nova

AUTOEKOIZPENA

Iraupena: 39'53"
4,50 euro

NOVA

«Muturreko metalean eta jazzean daude talde teknikoak»

Novak eztanda baten ostean jaiotzen dira. Zuek zer ezantatik zatozte?

Talde askotan ibiliak gara eta Nova zerbait serioagoa egiteko sortu genuen; pasarte atmosferiko eta kañeroak batzeko. Ez genuen betiko metala egin nahi, zerbait indartsua aukeratu genuen, baina sentsibiltate desberdinarekin.

Disko hau grabatu zenutenetik denbora asko igaro da.

Bai, 2006an grabatu genuen Donostian J-Manurekin, eta oso gustura gelditu ginen. Baina gero, diskoaren kopiak asko atzeratu ziren, gorabehera asko izan ditugu. Ez da erraza zuek zuzenean ikustea...

Lan kontuengatik larri ibiltzen gara, eta lau urtean hamasei bat emanaldi egin ditugu. Arantza hori barnean daramagu.

Kontrastez betetako Lezon entseatzuzue. Horrek musikan eta hitzetan eragina izan duela diozue.

Kontrasteak bilatzea gure helburuetako bat da: musikak aire gehiago hartzen du. Rockaren jarrera, metalaren zaplaztekoa eta elektronikaren kutsu atmosferikoa

batzen saiatzen gara. Bestalde, Lezon entseatzuzue dugun arren, Orereta, Antxo eta San Pedrokoak gara. Donostia oso hurbil daukagu eta ez zaigu batere gustatzen. Horrek amorrua ematen digu, hitzetan eta musikan transmititzen duguna.



Ñabardurez gain, sumatzen da 90eko hamarkadako thrasharen nola halako kumeak ere bazaretela...

Bai, Pantera eta Slayer taldeen zale porrokatuak gara. Baita Entombed, Death... muturreko metalarena. Teknikoki asko gustatzen zaizkigu talde horiek. Alor horretan eta jazzean daude musikari onenak. Ez dago mugatu beharrik.

Elektronikak aukera asko ematen dizkizue?

Bai, kristoren aukerak eskaintzen ditu abestiei bestelako kolo-rea emateko, nahiz eta guk ez dugun izugarri erabiltzen. Teklatuarekin eta gitarren efektuekin gauza ugari egin daitezke. Bestalde, azkeneko abestian sanplerrak sartu ditugu eta apur bat esperimentatu dugu. Erreminta horiek bestelako aberastasuna ematen dute.